

ITXARO BORDAREN ERRESISTENTZIA- POESIA¹

Tina Escaja

Vermonteko unibertsitatea (EEUU)

tina.escaja@uvm.edu

Aipatzeko gomendioa || ESCAJA, Tina (2013): "Itxaro Bordaren erresistentzia-poesia" [artikulu linean], *452°F. Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 9, 111-125, [Konsulta data: dd/mm/aa], < http://www.452f.com/pdf/numero09/09_452f-mono-tina-escaja-eu.pdf>

Ilustrazioa || Raquel Pardo

Itzulpena || Mikel Babiano

Artikulu || Jasota: 14/01/2013 | Komite zientifikoak onartuta: 13/05/2013 | Argitaratuta: 07/2013

Lizentzia || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkatarizarako - lan eratorririk gabe



Laburpena || Itxaro Bordaren obra poetikoko (gorputzaren, hizkuntzaren, sexualitatearen, kulturaren eta geografiaren) aniztasunaren izaera aldarrikatzaile eta ameslaria aukera ugaritasunaren eta erresistentziaren isla da Iparraldeko autoreak maiz esplizituki kritikatzeko duen euskal nazionalismo adierabakarrak, hipermaskulino eta zurrinak ezartzen dituen balioekiko. Ezberdintasunak barne hartzen dituen hizkuntza/naziotik hizkuntza/nazioari egiten dion kritikak boterearen arrazoibide adierabakarra indargabetzea lortzen du, Bordaren obra poetikoak aurkezten duen aldizkatze-estetikan «zentralitate mugikor» edo mugikortasun periferikoaz baliatuta esentzialismo eta hierarkiei aurre eginez.

Gako-hitzak || Euskal poesia | Queer Ikasketak | Itzulpengintza | Erresistentzia | Nazionalismoak | Feminismoak.

Abstract || Itxaro Borda presents in her poetry a visionary aesthetics of plurality (of language, body, sexuality, culture and geography) that point to a celebration of alterity and of resistance toward values imposed by the univocality and hyper-masculinity of a Basque nationalism that the author often denounces. Her criticism of the language/nation from within the language/nation that includes differences allows the fixity of the discourse of power to be dismantled, resisting its essentialisms and hierarchies from a «mobile centrality» in the fluctuating aesthetics present in her poetry.

Keywords || Basque Poetry | Queer Studies | Translation | Resistance | Nationalisms | Feminisms.

Itxaro Borda (Bernardette Bordaren izengoitia) Baionan jaio zen 1959an, «aunque ser, es de Oragarre»², iturri batzuetan zehazten duen bezala. Lanbidez «cartero»-a (Borda, 2006: 35; 2004: 114)³ dela dio eta, horrela, hasiera-hasieratik indartzen du bere nortasun ibiltaria, bere poetika pertsonal zein literarioaren giltzarri. Bordaren jaiotze-data bat dator, Manuela Palacios *Forked Tongues* konpilazio poetikoaren editorearen hitzetan, «in a very hostile social and cultural context before 1979» (Palacios, 2012: 12) hazi zen eta idazteari ekin zion generazio batekin. 1979ko urrian, Francisco Franco diktadorea hil eta lau urte geroago, Espainian Euskadiko Autonomia Estatutua, Gernikako Estatu ere izendaturikoa, onetsi zuten, Espainiako Bigarren Errepublikaren garaian, 1936an, lortu zuten baina Bizkaira mugatuta egon zen estatutu laburraz bestelakoa. Autonomia Estatutuak nortasun nazionalari eman zion berebiziko garrantziak euskara unibertsitate eta ikastetxeetan txertatu ahala garatuz joan den egitura nazionalistaren pareko eraikuntza literarioa behar izatea dakar. «La nation est une création littéraire» azpimarratzen du Ur Apalategik, nagusi diren hizkuntza- eta lurralde-unitateekiko euskal kokapenak duen izaera periferiko eta mendekoa nabarmentzeaz batera. (Apalategi, 2008: 149). Irizpide bera kontuan hartuta, Apalategik honakoa dio: «à l'auteur que l'on trouve au centre du champ littéraire national, on ne demandera jamais d'où il vient ou quelle langue il utilise». Premisa hori euskal nazionalismora zabaltzen du eta, bere iritziz, ez da ohikoa euskal idazle bati euskara batuan zergatik idazten ote duen galdetzea, bai ordea euskalki batean idazten duenari, bigarren horiek «une revendication» (2008: 150) kutsua baitute. Zentroko egituraren funtzionamendua aldatzeak iraultza literario-politiko eta linguistikoa eragingo lituzke, azpimarratzen du Apalategik aipatu auziaren harira. Itxaro Bordaren kasuan, auzi hori genero- eta sexualitate-nortasunera hedatzen da, eta baita nazionalismoa eta kanona islatzen dituen araudi heteronormatibo eta maskulinora ere, Apalategik berak unibertsal maskulinoa erabiltzen duenean argi geratzen den bezala: *el autor*⁴. Era berean, Itxaro Borda nafar-lapurteraren eremuan dago geografikoki eta linguistikoki, Iparralden, prestigiotsua izan eta Hegoaldeko idazleak idazten hasi baino bi mende lehenago ere erabili zen arren Hegoaldeko euskararekiko bigarren mailan dagoen hizkuntzan. Nolanahi ere den, tradizio biak ez dira, oro har, literariotzat jotzen XIX. mendearen hasiera arte, ordura arte erlijioarekin zein apologiarekin lotutako gaiak baitziren nagusi, gaur egun ere existitzen den ahozko tradizio luzea ahaztu gabe. Horrela izanik ere, Gorka Aulestia historialari eta hiztegi-gilearen hitzetan euskararen gaurko ezagutze eta erabilera mailak hazi egin dira, baina «it has never transcended its status as the language of peasants» (2000: 1). Itxaro Bordak estatus hori aldarrikatzen du, nekazari eta artzainen ondorengoa da eta horrela sentitzen du bere burua, eta sentimendu hori transmititzen du bere poesian une oroko erreskatean dagoen nortasun kultural, pertsonal eta linguistikoko gisa. «Llevo mucho

OHARRAK

1 | Lan honen zati bat Modern Languages Association Convention kongresuan aurkeztu nuen, Bostonen, 2013ko urtarrilean, «Poética de alternancias: autoras miskitas y en euskera» izenburupean.

2 | Oragarre Nafarroa Beherako landa-herria da eta bertan hazi zen autorea. Paun ere bizi izan da, non Nekazaritza eta Historia ikasi zuen, Maulen eta Parisen, eta egun Baionan bizi da; maiz bidaiatzen du gonbidatu eta hizlari gisa.

3 | «Cartero» hitza bere horretan ageri da kontsultatutako iturrietan. Hala eta guztiz ere, Bordaren lanbidea «guichetière à la poste» da izatez, hots, postako leihatilaren atzean lan egiten du, herritarren premiei erantzuteko, edota postu beraren parekoetan.

4 | Euskal nazionalismoaren eraikitze-prozesuko androzentrismo sistematikoari buruzko ikerketa bat aztertzeke, ikus Begoña Echevarría (2003).

tiempo escribiendo en euskara, porque me parecía que pertenecía a un mundo que estaba desapareciendo, a ese mundo de agricultores del interior [...]. Ser escritora es una gran suerte y eso me hace sentir que el mundo que represento cuando escribo no cambia, no cae, no se hunde, no se desgasta, no se pudre» (Borda, 2010a). Bordaren idazketa/aldarrikapen estrategietan oinarrituta Apalategik atontzen duen periferiatik zentrorako «bidaia» prozesua erabat bestelakoa da, historikoki, euskal diasporaren kasuan, AEBko belaze handietan transhumante aritu ziren artzainek islatzen duten bezala, eta haien artean Bordaren ezagunak ere badaude. Susan Lloydek «Vanishing Breed» izen esanguratsua duen egunkari-oharrean euskal artzainaren izaera erromantizatua nabarmentzen du: «They had become legendary herders. Self-sufficient wanderers and storytellers as well, they were mystical mountain men in the “golden fleece” days of the West» (Lloyd, 1997: 10)⁵. Lloydek Ipar Amerikako mendebaldean zinez euskaldunak diren lekuetako kultura exotizatuari erreparatzen dio eta harrotasuna eta komunitate sentimendua antzematen ditu bertan; era berean, artzainen izaera iragankorra azpimarratzen du, Isidoro Martínez edo Jean Urruty bezalako artzainak hil eta gero. Bigarrenari Bordak «I am the Resurrection and the Life» poema eskaini zion, Susan Lloydek *The Denver Post*-eko bere oharrean aipatzen duena:

Now you are gone... Life has a beginning and an end
I stay here full of tears, full of rising memories,
Now the red land of Colorado
Will softly dry your old bones. (Borda citada en Lloyd, 1997: 10)

Elegiazko lantua eta poemaren titulua bat datoz euskal poesiaren tradizio apologetiko eta erlijiosoarekin, eta lotura hori Lloydren artikuluan ere iradokitzen da. «We are closer to God in the mountains than down below» zioen Domingo Aguirrek, Lloydek Elkoko (Nevada) jaialdian topatu zuen euskaldunetako batek, «That’s why they say we Basques are mystics» (Lloyd, 1997: 10). Hala eta guztiz ere, etiketa eta arauak etengabe ezbaian jartzen eta gainditzen dituen Iñaki Bordak gai horietatik harago begiratzen du eta bere bilakatzen ditu aldarrikapen eta erresistentzia xede berarekin. Bere sinesmen erlijiosoei buruz Jose Arregirekin izan zuen elkarrizketan (Arregi, 2010: 39), Bordak azaldu zuen bere hizkuntzan zeuden meza-liburuekin ekin ziola euskararen ikaspen literario eta estilistikoari, eta geroago erlijiotik urrundu zela eta jainkoaren (Bordak letra xehez idazten du, sistematikoki) kontzeptu instituzionala kritikatu zuela. Aldi berean, hizkuntza ikasteko tresna horrek eta ohar espiritualak (Bordak haurra zela moja izateko sentitu zuen bokazioa) «the Resurrection and the Life» ahalbidetzen dute, desagertuko zirela zirudien kultura eta hizkuntza berreskuratzea eta ospatzea.

Iñaki Bordak agonia pertzepzio horri aurre egiten dio, Apalategik ere

OHARRAK

5 | Lloyd-ek, ordea, ez du bere artikuluan aipatzen euskal artzainek, atzerriko etorkin gisa, prestigio eskaseko zeregin hartan pairatu behar izaten zuten diskriminazioa, ezta euskaldunak beren lanerako mehatxu gisa ikusten zituzten arrantxo-jabeen aldeko diskriminazioa ere. Horrek guztiak euskal artzainen isolamendua areagotu zuen, eta, era berean, beren izaera sendotu zuen komunitate kultural eta linguistiko gisa. Ikus horri buruz, besteak beste, Elizabeth Shostak.

Iparraldeko egoera soziolinguistikoa dela-eta azpimarratzen duen horri. Haren hitzetan, Bordak «syndrome du dernier des Mohicans» (Apalategi, 2008: 158-159) du. Bordak, aitzitik, bere hizkuntza eta kultura «centralidad móvil» edo «erógena» delakotzat dituenen bitartez ospatzen ditu, hibridazioan, hizkuntzaren mugei buruzko hausnarketetan, bere nortasunean, lesbiana izate kontzientean, ikuspen aniztasunean eragina duten estrategien laguntzaz. Ibai Atutxak aipatu eta itzultzen duen Joseba Gabilondo bat dator horrekin: «a través de los significados de la lengua y su ausencia (el mutismo), creo que nuestra escritora también puede ser muda, una muda que habla muy alto, de más de una manera, y en más de una lengua» (Atutxa, 2011: 202, nota 9)⁶. Horri dagokionez, Itxaro Bordak nabarmentzen du: «Cuando escribo me da igual leer una estadística que mencione la pérdida del euskara en Iparralde, para mí no se pierde, cuando escribo no se pierde, creo que cuando escribimos, o cantamos, o pintamos [...] no se pierde» (Borda, 2010a).

Premisa espiritual/genesikotik abiatutako adierazpen epikoa xede «refractario»-a⁷ duten aipatu estrategietako bat da nire ustez, eta Gabilondok, Ibai Atutxaren aipua kontuan hartuta, «migración melancólica» izendatzen duenarekin zerikusia du, hots, «su casa original» etengabe galtzeko prozesuarekin (Atutxa, 2011: 202, 8. oharra). Atutxak euskal sistema hegemonikoaren eskutik aniztasun territorial, sexual eta geolinguistikoro ezkutatu nahi izatearekin lotzen du hori (2011: 202). *Alfa eta Omega euripean / Alfa y Omega bajo la lluvia* (Borda, 1999); *Begiak erre argiz / Los ojos encendidos de luz* (Borda, 2006) bezalako poema-bildumak; «Cantos Tribales» I eta II (Borda, 2010b) seriea; horiek guztiek genealogia berriak eragiten dituen espiritu nomada barreiatzen dute. Esanguratsua da *Alfa y Omega bajo la lluvia* poema-bildumaren hasieran ageri den Nazim Hikmet idazle eta aktibista turkiarraren epigrafea: «Algo de gran importancia/ te diré/ la gente cambia/ cuando cambia de lugar» (Borda, 1999: 5). Itxaro Bordaren espazioa aldizkatze geografiko, genesiko, tribal eta linguistikoa datza, hizkuntzaren aldetik apurtzailea eta gogoeta sustatzailea den mugako leku batean: «Las palabras,/ En la Arcadia a menudo están de más,/ O no son suficientes» (Borda, 2006: 84). Olga Orozco argentinarra bezalako poeta latinoamerikar postabangoardisten kasuan gertatzen den bezala, zeinuaren komunikazio-gaitasunarekiko konfiantzagaltzea zatiarekin, galdutako Batasunarekin, adierazitakoaren eta adierazlearen arteko helezinezko puntuarekin zerikusia duten irudien bidez islatzen da. Bordaren poetikaren kasuan, gogoeta horren baitan kultura eraikitze balioa duen hizkuntzaren izaera ontologikoa ageri da, eta Batasuna «casa perdida»-rekin identifikatzen da, nazio eta «madre» nozioekin, Gabilondok Atutxari erreferentzia eginez (2011: 201) azaltzen duen zentzu epikoan, nazionalistan; hala ere, jatorrizko nortasun baginazko eta lesbikoaren kontzeptura ere heda liteke, Bordarena den eta hark erdietsi nahi duen jatorrizko lekura:

OHARRAK

6 | Ibai Atutxa Joseba Gabilondoren ikerketari buruz ari da (2006): *Nazioaren hondarrak, Euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

7 | Ikus nire lana emakumezko autore garaikideen generazio hezigaitzari buruz (Escaja, 2009). Bordaren lana «fraktura»-ko bigarren etapan koka genezake: «Fractura: Ontología. Refracción como afirmación trascendente» (2009: 375-380).

«nire poema guztiak lesbikoak direla pentsatzen dut, argi eta garbi edo subliminalki, eta hori idazle gisa lehen urratsak eman nituenetik» (ikus Eranskina).

Itxuraz helezina den aldizkatzeen tarteko puntua isiltasuna da, ikusezintasuna eta mututasuna, Atutxak horrela arrazoitzen duen mututasuna: «a la inexistencia de la identidad propia en el contexto hegemónico vasco actual» (2011: 202, 9. oharra). Berau ezberdintasunak baztertzen edo urratzen dituen hegemonia orora zabaltzen da: «Yo no soy Ulises,/ Nadie me espera,/ En ninguna parte» (Borda, 2006: 85); «Tengo ojos y soy ciega./ Tengo oídos y camino sorda» (Tribal Song II; Borda, 2010b). Gaindiezinezko distantzia arrasto, haustura eta errepikapenekiko analogia zeharkako aipamen bidez ebatzi nahi da: «El camino de polvo distraído» (Borda, 2006: 84), «La interferencia incontrolada de las lenguas/ Y el lento fluir del tiempo/ Parten tu ser/ De lado a lado: ¡ama!» (2006: 85). Berreketa, mutazioa eta arrastoa etengabe errepikatzeak erakusten dizkigu genero-nortasuna eraikitzeako «simulacro» nozioa eta ezegonkortasun izaera; horixe da Judith Butlerren proposamena, Atutxak euskal nazionalismoaren eraikuntzari egokitzen duena eta Bordak, haren hierarkia binario eta esentzialistan oinarrituta, aurre egiten duena (Atutxa, 2011: 200)⁸. Aipatu azken bertsoetan, Bordak historikoa eta inplizituki heteronormatiboa den politikaren eraikuntza eta inposizio izaera hori nabarmentzen du, ahots poetikoa banantzen duena («parten tu ser»). Hortik abiatuta, autoreak pluraltasuna eta gorputza ardatz dituen izaera anitzeko aukera berria proposatzen du: «¡ama!».

Aipaturiko mandatuari, eragin genesikoa ere duen horri dagokionez: «¡ama!», Borda poeta existentzialen eta sexu/nazio eraikuntzatik kanpoko esentzialismoez bestelakoa da. Zeinuaren komunikazio-gaitasuna ezbaian jartzen duen arren, Bordak sistematikoki eusten die, konfiantza demiurgikoz, hizkuntzari/hizkuntzei errealitatea izendatzeko, berau birsortzeko, ikuspegi politiko eta generokotik abiatuta:

Yo, Jean, llegué
A Patmos en lo profundo de la noche.
[...]
Contemplo cómo la voz rebelde
Se petrifica
Y oigo cómo el verbo
Se encarna
En trueno.
En el calor de la cueva
Percibía la paz.
Sigo dando a ver
Lo que de verdad
Ha acontecido. (2006: 85)

OHARRAK

8 | Ibai Atutxak ere erreferentzia egiten dio Homi K. Bhabha-ren «ambivalencia» kontzeptuari, esku-hartze eta zilegizko desautorizazio antihegemonikorako sedimentu gisa boterearen arazoibidearen «ambivalencia» kontzeptuari, hain zuzen ere (Atutxa, 2011: 212). Posible da Bordaren estetikari, mugakoa eta berariaz «móvil» denari, beste teoria batzuk aplikatzea; Rosi Braidotti-k «sujetos nómades»-ei buruz dioena da agerikoena. Ohar honetara mugatzen ditut, begien bistakoak direlako eta esentzialismo teoriko hegemonikoak saihestu nahi ditudalako. Gainerakoan, Bordak erreferentzia «fija»-n , eta ez «flotante»-an, oinarritutako nomadismoa proposatzen du, Braidottik *Nomadic Subjects*-en (2011: 10) aztertzen duenaren modukoa.

Itxaro Bordaren ahots poetikoa lekuko, eskriba eta partaide da sortze lan tribalak esku hartzen duen prozesu genesiko eta demiurgikoan. Sortze lan hori eragin globaleko tradizio zabalagoaren baitan txertatuta dago (epika eta mitologia grekolatindarra *Los ojos encendidos de luz*-en; Li Po erbesteratutako poeta txinatarrari maiz egiten dizkion erreferentziak, ni poetikoa harekin identifikatzen baita poema-bilduma honetan eta beste batzuetan):

Como el niño que nace sin avisar,
Los idiomas rasgan la carne y golpean
La cavidad bucal,
Estrangulando las lenguas.
Mi sombra y yo creímos
Que los vientres mudos de los verbos
Desconocidos iban a explotar.
Las lenguas locales, regionales y extranjeras
Se unían en una danza vertiginosa. (2006: 84)

Etengabe desplazatzen ari den eta armonian dagoen (gorputzaren, hizkuntzaren, sexualitatearen, kulturaren eta geografiaren) pluraltasunaren jarrera errebindikatibo eta ameslaria («Las lenguas locales, regionales y extranjeras/ Se unían en una danza vertiginosa») euskal nazionalismo adierabakar, maskulino eta zurrinak, Itxaro Bordak maiz kritikatzeko duenak, inposatzen dituen balioen aurkako aukera ugaritasunaren eta erresistentziaren isla da. Hizkuntza/naziotik hizkuntza/nazioari egiten dion kritikak Apalategik bere artikuluan laburbiltzen dituen helburu jakin batzuk erdiesten ditu; alde batetik, aipatu kritikariaren arabera, Bordak euskararen hierarkizazio geolinguistikoa ezbaian jartzen du, eta «la domination du basque unifié et de Donostia-Saint Sébastie qui représentent le centre du système basque» (Apalategi, 2008: 156) salatzen du. Beste aldetik, Bordak proposatzen, aldarrikatzen eta, hortaz, parekatzen ditu ezberdintasun geolinguistiko horien baitako aldaerak (Apalategi, 2008: 156). Apalategiren hitzetan, Amaia Ezpeldoi detektibe lesbiana protagonista duten eleberriak zubereraz, behe-nafarreraz, penintsulako nafarreraz (2008: 155) eta euskara batuan idatzita daude, baina baita frantsesa, ingelesa zein gaztelania bezalako hizkuntzetako hitzak barne hartu ohi dituzten eta beren hizkera-errealitatea (aldarrikatu nahi den edozein hizkuntzaren ustezko «autenticidad» ezbaian jartzen duen errealitatea) islatzen duten zenbait aldaeretan ere. Idazleak berak azpimarratzen du «Así nació Amaia Ezpeldoi» konferentzian «una visión completa de nuestro territorio» emateko duen motibazioa, maila historikoan, geografikoan, soziosexualean eta, batik bat, linguistikoan; era berean, honakoa kritikatzeko du: «la sociedad vasca, conflictiva, fagocita esos cambios socioculturales» (Borda, 2012a). Barne hartzea eta erresistentzia xede dituen eginkizun horretan, Apalategik borondate iraultzailearekin eta «nouvelle langue littéraire» sortu nahi izatearekin lotzen duen

horretan, idazleak izaera dialogiko propioa, konplexua eta ez finkoa aldarrikatzea ere lortzen du, isilarazitakoa, baina existitzen dena eta «muy alto» hitz egiten duena. Horixe proposatzen zuen Gabilondok (Atutxa, 2011: 202, 9. oharra), «centralidad móvil»-tzat dudaren baitan, Bordaren zentralitaterako proiektua dela-eta Apalategik argudiatzen duen ustezko porrota indargabetzen duen «centralidad móvil»-aren baitan, hain zuzen ere. Bordak Euskadi saria, euskal sari garrantzitsuena, irabazi zuen % 100 *basque* izen esanguratsua duen eleberria idazteagatik. Lehendakariaren eskutik jaso zuen saria eta ekitaldia telebistaz bota zuten zuzenean; Apalategiren hitzetan, horrek paradoxikoki baieztatzen ditu euskal ofizialismoa eta Iparralden idatzi eta Hegoalden argitaratzen duen (eta irakurria den) emakumezko autore gisa etiketatzen duten zentro-periferia eraikuntzak. Apalategiren ustez, sari hori eman izanak zentro-periferia/kultura menderatzailea-mendekoa harremana erlatibizatzen du, berau sendotzeaz batera, kritikariak «inachevé», frustratutzat duen autorearen zentrorako prozesu edo «viaje» baten inguruan; horrela, Bordaren estatusa «écrivaine périphérique de la périphérie de la périphérie» (Apalategi, 2008: 153) gisakoa da halaberharrez.

Dena dela, esentzialismo eta hierarkiekin bat ez datorren eta haiei aurre egiten dien mugikortasun periferiko eta aldarrikatzaile horretan datzate, hain zuzen ere, Itxaro Bordaren originaltasuna eta iraunkortasuna, eta azken finean, baita hertsiki euskalduna den kontzeptualizazioa «gainditzeko» duen bere izaera unibertsala ere⁹. Bordak berak hirugarren pertsonan *Once (poetas) para trescientos (lectores): (Mujeres poetas en el País Vasco)* izen esanguratsua duen antologiarako poetikan azpimarratzen duen bezala, «[s]iempre ha escrito desde la frontera o el límite de la lengua, su paisaje vasco-norteño o desde su propia experiencia, de manera nerviosa y alarmada, utilizando sin cesar la lengua poética y ese sujeto poético, ese yo tan denostado por la *clerocracia* para plasmar sus dudas acerca del mundo vasco» (autorearen enfasia, Borda, 2001: 79). Gogoeta eta balio-aniztasun horretan dago Itxaro Bordaren «centralidad móvil», aukera anitzen artean adi-adi dagoen kokapen kontzientean, ni/bera(iek) lesbiko eta jatorriko batetik abiatuta, araudi nazionalista eta patriarkalak mugatu nahi duen errealitatearen nortasun polifonikoaren (sexuala, geolinguistikoa, kulturala) eraginezkoa. Ibai Atutxak «Una *queer basque nation*»-tzat (Atutxa, 2011) du Bordaren proposamena, eta ingelesezko terminoaren bidez azaltzen ditu autoreak aldarrikatzen duen nortasun lesbikoari, anitz eta oinarritzaile, «alarmada»-ri, dagozkion hartu-eman eta fluktuazioak, ikuspegi teoriko inklusibo batetik. Joana Sabadell-ek «feminación» (Sabadell, 2011) gisa identifikatuko luke espazio hori, feminismitik abiatuta nazional denaren txoko «acogedora» eta ez baztertzatzailea. «Credo» poemaren azterketak —bere itzulpenetan oinarrituta— Itxaro Bordaren poesian berariaz ageri den estetika fluktuatzaile eta erresistentziazkora gerturatzea ahalbidetuko digu.

OHARRAK

9 | «Desbordamientos»-ekiko erreferentzia Joana Sabadell Nieto-k «feminazioa» dela eta egin zituen azalpen feministekin lotuta dago (Sabadell, 2011).

OUTSIDE/CREDO	CREDO (trad. Ixtaro Borda)	CREDO (trad. Tina Escaja)	OUTSIDE (trad. Celia de Fréine)
<p>Outside nago. Has been baino has behin Bat baizik ez naiz Oraindik ere.</p> <p>Ene poesia a-soziala dela</p> <p>dinotsut outsidera deitzen zaitudan bitartean. Ez dut laudatiorik nahi Basamortuan oihuz dabilan Ahots alderraia/ibiltaria* Baizik ez naizelako Orandik ere.</p> <p>Ene poesia a-soziala dela</p> <p>dinotsut. Ez dut ezagupenik nahi ez egun, ez bihar, ez etzi, basamortuan kantari dabilan sakrifikuaren itzal alderraia baizik ez naizela dagoeneko.</p> <p>Ene poesia a-soziala dela</p> <p>dinotsut. No future outside: Ahantzi dezatela</p> <p>Ene poesia a-soziala gure amen izerdiak ahantzi diren bezala. Amen.</p>	<p>Je suis outside. Plutôt débutante Encore que Has been,</p> <p>Je te dis Que ma poésie Est a-sociale</p> <p>Quand Je t'invite Outside. Pas de losanges pour moi Puisque je suis toujours La voix nomade Qui perce en criant Dans le désert.</p> <p>je te dis Que ma poésie Est A-sociale.</p> <p>Pas de reconnaissance pour moi Ce jour, ni demain, ni après- demain,</p> <p>Puisque désormais je suis L'ombre nomade Du sacrifié qui chante Dans le désert.</p> <p>je te dis Que ma poésie Est A-sociale.</p> <p>No future outsider: Qu'ils oublient Ma poésie A-sociale</p> <p>Comme ils ont oublié La sueur de nos mères. Amen.</p>	<p>Existo outside. Debutante acaso más que has-been.</p> <p>Te digo que mi poesía es a-social.</p> <p>Mientras te invito outside. No busco honores puesto que soy tan sólo la voz nómada que persiste en gritar en el desierto.</p> <p>Te digo que mi poesía es a-social.</p> <p>No busco reconocimiento ni hoy, ni mañana, ni más tarde puesto que de ahora en adelante soy apenas la sombra nómada de la sacrificada que canta en el desierto.</p> <p>Te digo que mi poesía es a-social.</p> <p>No future outside: que se olvide mi poesía</p> <p>a-social así como se olvidaron los sudores de nuestras madres. Amén.</p>	<p>I am outside a beginner rather than a has-been. I tell you my poetry is a-social</p> <p>When I invite you to come outside. I don't want honour because I am but the voice of a nomad howling in the desert.</p> <p>I tell you my poetry is a-social.</p> <p>I don't want recognition not today or tomorrow or the day after because from now on I am but the shade of a sacrificial nomad chanting in the desert.</p> <p>I tell you my poetry is a-social.</p> <p>No future outside: may my a-social poetry be forgotten as our mothers' sweat has been. Amen.</p>

Jatorriz (edo aldi berean) «Outside» izendaturiko poema hau *Forked Tongues* (Borda, 2012c: 87-88) 2012an euskal emakumezko autoreen bilduman argitaratu zen, eta bertan «unpublished» gisa ageri da. Poeman dagoeneko aipaturiko ezaugarrietako batzuk antzeman daitezke. Urte berean Bordaren *Medearen iratzartzea eta beste poemak* (Borda, 2012b: 82-85) liburukia argitaratu zen eta bertan «Credo» izena du poemak, autorearen beraren frantseserako itzulpenean oinarrituta. Tituluen aldiberekotasunak partaide bihurtzen gaituen sormen-lanaren aukera aniztasuna edo fluktuazioa islatzen ditu, non autoreak poema osatzen duten «artículos de fe» edo «credo» moduko bertso pertsonal eta poetikoen aldeko apustua egiten duen. Aipatu «credo»-ak, izenburutik hasita, araudi katolikoa eta haren arrazoibide baztertzailer, adierabakar eta patriarkala alde batera uzten du, eta edukiari zein formari dagokionez etengabe puskatzen eta aldatzen ari den kredo-beste batek hartzen du haren lekua. Horren arabera, autorearen ni zuzen eta deitzailea, dagoeneko autorearen poetikan azaldu den bezalakoa, «la frontera o el límite de la lengua»-n (Borda, 2001: 79) kokatzen da: «Outside nago»; «Je suis outside». Mugako entitateak izaera ontologikoa, jatorrizkoa, bereganatzen du lehen bertso horretan; entitate paradoxikoki «fija» da, autoreak proposatzen dituen espazio dialektiko, ideologiko eta

generokoen arteko mugikortasun eta etengabeko aldizkatzearen baitan, sekula gelditzen ez den «centro móvil» modukoa. Aukera aniztasunaren jolasean antzematen da autorearen ni aktibo eta presentea, zentzu poetiko zein politiko eta geolinguistikoan. Hasierako adierazpen elebiduna: Outside nago / Je suis outside-ek helburu aitortzailea, fluktuatzailea, adierabakartasunarekiko erresistentziatzakoa du, eta, horrela, agerian uzten du hizkuntza kanonikoak eta araudi patriarkal/nazionalak tradizioz ezkutaturiko ni pertsonal eta poetiko erreal eta konplexua: «Existo outside»; «Soy outside»; «yo outside» gaztelaniazko adiera posibleak izan litezke autorearen ni ausente/presenteak duen kokagune horretarako.

Gerturapen analitiko hau prestatzeko autoreak berak egin duen frantseserako itzulpenean oinarritu naiz batik bat. Hark, elkarrizketa pertsonalean, euskaldun-frantziar bi kulturen jabe sentitzen dela adierazten du (ikus Eranskina), eta bien arteko erlazio horrek idazketaren eta auto-itzulpenaren prozesuari berari eragiten dio.

Frantsesera itzultzen dudanean iruditzen zait arkeologo lana egiten ari naizela, jatorrizko testua argi berri batenpean deskubritu behar dudala, eta sortze prozesuan banago euskarazko testua alda dezaket berau frantsesera itzuli ostean, edo haren frantseserako itzulpenaren arabera, azken finean nire-nireak diren bi hizkuntzekin jolasten dut.

Iñaro Bordak prozesu horren partaide bihurtzen gaitu «Credo» poema frantsesera itzultzerakoan, bertan jatorrizkoa omen denarekiko aldaketa fin baina esanguratsua antzeman baitezakegu. «Outside»-eko (Borda, 2012c: 86) «ahots alderraia» bertsoa «ahots ibiltaria» gisa ageri da «Credo»-n (Borda, 2012b: 82). Bestetik, ingeleserako «the voice of a nomad» (Borda, 2012c: 87) adieran zentzu inplizitua itzuli da, eta frantseseko bertsioa, berriz, biribilagoa da, inklusiboagoa eta koherenteagoa, poemarekiko: «La voix nomade» (Borda, 2012b: 83). Nolanahi ere, aldaketa semantiko hutsa «ibiltari» eta «alderraia»-ren artekoa da. Erabaki horiek «obligatory shifts» eta «voluntary shifts» izendatzen direnen arteko estrategiak agerian uzten dituzte, hizkuntza gutxitutzat jotzen den hizkuntza batetik hizkuntza menderatzaile batera itzultzeko/ autoitzultzeko unean topa daitezkeenak. Taiwo Olorntoba-Ojuk autore afrikarren lanetako itzulpen-erabakietan oinarrituta ikertzen eta sintetizatzen duen bezala, «shifts» edo derrigorrezko aldaketak enuntziatuen artean parekotasuna lortzeko saiakeraren ondorio dira; hautazko aldaketek, ordea, xede estetiko edo ideologikoa dute (Olorntoba-Oju, 2009: 275-276). Bordaren kasuan, instantzia biak nahasten dira, helburu ideologiko, politiko eta komunikatibo bera duten erregistro multilinguistikoak txertatzeaz batera gainditzen dira, «se desbordan».

Idazteko prozesuari berari buruz duen metodologiari dagokionez,

autoreak honakoa adierazten du: «Lehenik eta behin euskaraz idazten dut poema, maiz frantsesez pentsatu dudan arren, edo ingelesezko zein gaztelaniazko hitzekin» (ikus Eranskina). «Outside nago» eta autoreak berak itzultitako «Je suis outside» baieztapen elebidunak bere poetikan ageri den «yo tan denostado por la *clerocracia*» (Borda, 2001: 79) horren adierazpide konplexu poetiko zein pertsonal hori ontologikoki atzemateko prozesua eta etengabeko jarduna islatzen eta literalizatzen ditu. Horrela, Bordak manifestu eta erresistentzia ekintza bihurtzen du bere «credo»-a. Sintaxiari eta edukiari dagokienez, poeman etengabekoak dira hausturak eta fluktuazioak. Ni nomadikoaren eta desertzio edo erradikazio prozesu etengabekoan dagoen ni-aren arteko aldizkatzea («Puisque désormais je suis/ L'ombre nomade/ Du sacrifié qui chante/ Dans le désert») ez dator bat, hala eta guztiz ere, Bordak, behin eta berriz eta autoritatez, irakurlari bere tokia topatzeko eta jarreraren bat hartzeko egiten dion eskaerarekin:

Je suis outside.
Plutôt débutante
Encore que
Has been,
 Je te dis
 Que ma poésie
 Est a-sociale

Horren arabera, ni nomadikoak, edo ni nomadikoaren ahotsak, «sin hogar» etengabeko mugimenduan, Gabilondok azpimarraturiko zentzu nazional eta epikoan (Atutxa, 2011: 202, 9. oharra), ezberdintasunak eta bereziki ama/nazioa, ama/jatorria itotzen eta ezabatzen dituen instantzia patriarkal, nazional eta linguistikoak isilarazi eta zapaldukoak, autoritatez eta uste osoz salatzen eta islatzen du salatutako arrazoibide berak erabiliz eta azpikoz gora jarriz. Euskara ingelesa-frantsesa bezalako hizkuntza menderatzaileetako hitzekin tartekatzeak; arrazoibide katolikoa eta haren proposamen enuntziariozko eta demiurgikoa erabiltzeak ironia indartzen du eta baita azken autoritatea ere, subjektu poetikoaren instantzia nomada eta iragankorra gutxiesten duena, presentzia eta aldarrikapen bihurtzeko:

Qu'ils oublient
 Ma poésie
 A-sociale
Comme ils ont oublié
La sueur de nos mères.
Amen.

Ironia subertsiboa «Amén», azken lokuzioan ere antzeman daiteke; bertan «Así sea» esaera autoritarioa azpimarratzen du Bordak, baina baita aldarrikapen politikoa ere: «Amen» hitza «ama»-ren genitibo plurala da (gaztelaniazko «madres»).

Bordaren «Credo»-ak, azken finean, azken helburua erdiesten du, hizkuntza menderatzaile/nazio kontzeptuaren pertzepzio adierabakar, hipermaskulino eta heterozentrikoa indargabetzen eta aurre egiten duen errealitate polifoniko pertsonal zein unibertsala baieztatzeko. Bordaren originaltasuna eta ausardia erresistentziaren adierazpide polimorfiko horretan datza, subjektu poetikoa eta haren zentralitate mugikor eta erogenoa islatzen dituen aukera aniztasunaren jolasean; ikuspuntu monolitikoak ezin du zentralitate hori atzeman, zeinaren menderatze-arketipo nagusia hizkuntza ingelesean antzeman baitaitekeen; horrekin lotuta, adierazgarria da Bordaren poemaren ingeleserako itzulpena izatea ez eraginkorra, bera ez baita gai jatorrizkoaren izaera subertsibo eta konplexua islatzeko eta itzulpena deskribapen hutsera mugatzen duelako: «I am outside» (Borda, 2012c: 87)¹⁰. Muga horiekin batera, aipatu nahi nuke datu-prozesadoreek alteritateekiko duten erresistentzia. «Yo soy outside» idazten nuenean prozesadoreak etengabe «zuzentzen» zuen «anomalia» eta honakoa proposatzen zidan: «Yo soy outsider». Bestetik, hona hemen Manuela Palaciosen hitz biribilak, euskal emakumezko autoreek publiko zabalago baten aurrean duten harrerari buruzkoak: «Translation is a performative act by which the Other is acknowledged» (Palacios, 2012: 7). Hitzok engainagarriak dira erabat (edo ezinbestean) bere antologiarako aukeraturiko «Outside» poemaren kasuan. Amaitzeko, izaera subertsibo eta erresistentziazkoa Bordaren poetika «fronteriza» edo mugakoaren zein bere burua etengabe berresten, mugitzen eta erreskatatzen duen nortasun pertsonal eta kulturalaren izaera formaniztun eta aldarrikatzailea islatzen dituen estetikaren bidez transmititzen da.

Bibliografía

- APALATEGI, U. (2008): «Champ et sous-champs littéraires basques à travers l'étude d'un cas concret: l'oeuvre romanesque de l'écrivaine Ixtaro Borda» en Albert C.; Kouvouama, A. y Prignitz, G. (eds.), *Le statut de l'écrit. Afrique, Europe, Amérique Latine*, Pau: Presses Universitaires de Pau, 149-160.
- ARREGI Olaizola, J. (2010): *¿Qué dices de Dios?: Responden 40 escritores vascos de hoy*, Bilbao: Universidad de Deusto.
- ATUTXA, I. (2011): «Hacia una *Queer Basque Nation* desde la poesía de Ixtaro Borda», *Lectora. Revista de Dones i Textualitat*, 17, 199-219.
- AULESTIA, G. (2000): *The Basque Poetic Tradition*, White L. (trad.), Reno & Las Vegas: Nevada University Press.
- BORDA, I. (1999): *Alfa eta Omega euripean / Alfa y Omega bajo la lluvia*, Fernández, K. y Tolaretxipi, E. (trads.), Córdoba: Navas Ed.
- BORDA, I. (2001): «Ixtaro Borda» en *Once (poetas) para trescientos (lectores): (Mujeres poetas en el País Vasco)*, Madrid: La Palma, 79-93.
- BORDA, I. (2004): «Ixtaro Borda», *Zurgai*, julio, 114-115.
- BORDA, I. (2006): «Begiak erre argiz / Los ojos encendidos de luz» *Caravansari*, 1, 35-40, 84-85.
- BORDA, I. (2010a): «Desde siempre he escrito sobre ser lesbiana», GuipuzkoaKultura, <<http://www.gipuzkoakultura.net/index.php/es/letras/75-lecturas/1757-itxaro-borda-qdesde-siempre-he-escrito-sobre-ser-lesbianaq.html>>, [14/02/2013].
- BORDA, I. (2010b): «Tribal Song», Fernández Iglesias, A. y Tolaretxipi, E (trads.). (inérita)
- BORDA, I. (2012a): «Así nació Amaia Ezpeldoi.» Conferencia en Barcelona UB (inérita).
- BORDA, I. (2012b): *Medearen iratzartzea eta beste poemak / Le Réveil de Médée et autres poèmes*, Ixtaro Borda (trad.), Bayona: Maiatz.
- BORDA, I. (2012c): «Outside», de Fréine, C. (trad.), en Palacios, M. (ed.), *Forked Tongues. Galician, Basque and Catalan Women's Poetry in Translations by Irish Writers*. Bristol: Shearsman Books, 86-89.
- BRAIDOTTI, R. (2011): *Nomadic Subjects*, New York: Columbia University Press.
- ECHEVARRÍA, B. (2003): «Language, Ideologies and Practices in (En)gendering the Basque Nation» *Language in Society*, 32, 3, June, 383-413.
- ESCAJA, T. (2009): «De "fuegos fatuos" al "coño azul". Hacia una nueva historia de la poesía española escrita en castellano» en Von Der Walde, L. y Reinoso, M. (eds.), *Mujeres en la literatura. Escritoras*, México: Distrito Federal 4,19, marzo-abril, 259-385, <<http://www.destiempos.com/n19/escaja.pdf>>, [14/01/2013].
- LLOYD, S. (1997): «Vanishing Breed» *The Denver Post*, Denver, Colorado, Aug. 10, 10.
- OLORUNTOBA-OJU, T. (2009): «Translation Shifts in African Women's Writing: The Example of Nigeria» en Rüdiger, P. y Gross, K. (eds), *Translation of Cultures*, Amsterdam/New York: Rodopi, 273-289.
- PALACIOS, M. (2012): «Women Poets in Translation. An Introduction» en Palacios M. (ed.), *Forked Tongues. Galician, Basque and Catalan Women's Poetry in Translations by Irish Writers*, Bristol: Shearsman Books, 7-20.
- SHOSTAK, E. «Basque Americans», everyculture, <<http://www.everyculture.com/multi/A-Br/Basque-Americans.html#b>>, [14/01/2013].
- SABADELL NIETO, J. (2011): *Desbordamientos: Transformaciones culturales y políticas de las mujeres*, Barcelona: Icaria.

Eranskina

Elkarrizketa Itxaro Bordarekin prozesu poetiko/linguistikoari buruz. 2012ko abenduan egindako elkarrizketa elektronikoa (argitaragabea).

Tina Escaja: Kartografien mugan, inposaturiko edo ez inposaturiko izaeren artean dagoen poeta gisa, hizkuntza ofizialen eta ofizialak ez diren hizkuntzen arteko nabigatzaile gisa, nola hurbiltzen zara poemara? Euskaraz, lehenik eta behin? Poemak frantsesezko edo gaztelaniazko itzulpenean izan litzazkeen aukeretan aurretiaz pentsatzen al duzu eta horrekin lotutako erabakirik hartzen al duzu (irudirik bazterten duzu, esate baterako)? Horiek dira beste autore batzuen estrategiak hizkuntza «gutxitu» izendaturikoetan idazten dutenean.

Itxaro Borda: Lehenik eta behin euskaraz idazten dut poema, maiz frantsesez pentsatu dudan arren, edo ingelesezko zein gaztelaniazko hitzekin. Frantsesez testu bat idatzi behar dudanean, esate baterako, egitura orokorra euskaraz pentsatu ohi dut. Ohitura sistematikoa da, hizkuntza horretan nire burua seguruago sentituko banu bezala. Horrekin lotuta, 7-8 urterekin idazten hasi nintzenean ez nengoen euskaraz alfabetizatuta, frantsesez besterik ez, nire eskolako lehen hezkuntzan, eta orduan frantsesez poema txiki eta bukolikoak idazten nituen nire inguruko landa-giroa eta nekazarien alaba gisa nuen bizimodua deskribatzeko. 12 urte nituela euskaraz irakurtzen eta idazten ikasi nuen eta une hartatik erabiltzen dut, batzuetan atzerriko hizkuntza gisa (!) euskal kulturean inork erabiltzen ez duen zentzu horretan, modu apur bat basatian eta *do it yourself style*.

Tina Escaja: Zerorrek itzultzen al dituzu zure poemak hizkuntza menderatzaile batera edo beste batzuek itzultzen al dituzte? Bigarren aukeraren kasuan, zein da zure esku-hartze edo esku hartu nahi izateko maila adierazitakoaren eta arrotza izan daitekeen hizkuntzako tresna-bestearen arteko distantzia txikitzeko? Poemak zeure kasa itzultzen badituzu, edo zuzenean hizkuntza-beste batean idazten badituzu (edo ez), nola berrasmatzen duzu poema eta zeren arabera?: ideologia, estetika, politika, ontologia, kultura...

Itxaro Borda: hobe liteke, beharbada, nik neuk maiz zuzenean frantsesez idatziko banu, zerbait itzuli behar dudanean oso zaila iruditzen baitzait, erabiltzen dudana euskara nahiko eliptikoa da, ez oso funtzionala irakurleek eskatzen digutenaren aldean. Era berean, frantsesera itzultzen dudanean iruditzen zait arkeologo lana egiten ari naizela, jatorrizko testua argi berri batenpean deskubritu behar dudala, eta sortze prozesuan banago euskarazko testua alda dezaket berau frantsesera itzuli ostean, edo haren frantseserako itzulpenaren arabera, azken finean nire-nireak diren bi hizkuntzekin jolasten dut. Ez dakit nola azaldu. Baina euskarazko poema bat liburuetan argitaratuta badago eta zaharra bada, itzuli egiten dut, besterik gabe, ez dut jatorrizkoan ezer aldatzen eta haren izate poetikoa xede-hizkuntzan lantzen dut: esamoldeak, irudiak, beste hizkuntzarekiko barne logikaren arabera (frantsesa) etab. *I am lost in translation* ni ere... Beste pertsona batek itzultzen duenean bere lana interesatzen zait, baina eskatzen ez badit ez dut poemetan esku hartzen, itzultzailea literatur kritikariaren antzekoa da niretzat, askatasun-erabaki espazioa behar du bere lana bukatzeko, eta autoreak itzultzailearen lanari etengabe erreparatzen badiu, bere bizitza infernu hutsa da. Bazkari bateko gonbidatua sukaldetan eta sukaldariaren lanean sistematikoki muturra sartzen egotearen parekoa da.

Badakizu euskaraz idazten dudanean ez dudala hizkuntza minoritario, minorizatu batean

idazten ari naizen sentsaziorik, ez dut pentsatzen nire hizkuntza desagertze bidean dagoela, azken 40 urteotako terrorismoaren eraginez zikinduta eta hipermaskulinizatuta dagoela. Nahiago dut eskualde-hizkuntza batean idazten dudala esatea; ez da hain mespretxagarria eta orduan hizkuntza nazionaletan edo nazioartekoetan idazten duten emakumezko idazle arruntak bezala aritzen naiz ia-ia. Eta, dakizun bezala, egunero idazten dut lanera noanean edota lanetik itzultzen naizenean, hori da nire erritmoa, nire poemekin ez nagoenean zureak itzultzen ari naiz edo María Mercé Marçal-enak, beste hizkuntza batzuk ere irakur eta uler ditzakedalako: gaztelania, katalana, galiziera, italiara, ingelesa, alemana... Poesia eta literatur ezagutza edateko iturriak biderkatzen zaizkit. Badakizu, guk, nekazarien seme-alabok, ezer ez dakigula uste dugu beti, lankideen aldean, esate baterako, analfabetoak gara, haiek hiritarrak direlako, eta bulimikoki ikasten ahalegintzen gara.

Tina Escaja: Eta maitasunaren mugak? Eta sexuarenak? Horri buruz zerbait esango zenuke?

Itxaro Borda: Gaiei dagokienez, uste dut nire poemetan maitasunari buruz mintzo naizela batik bat, politikoak diren edo politikoak diruditen arren. Zentzu horretan ez dago mugarik. Nire eleberrietan pertsonaia heterosexualak baditut nire poema guztiak lesbikoak direla pentsatzen dut, argi eta garbi edo subliminalki, eta hori idazle gisa lehen urratsak eman nituenetik. Hamarkada askotan nire egiaren txoko bakarra izan zen idaztea, 2000 urte inguruan *coming out*-aren unea iritsi zitzaidan arte. Horrek Euskal Herriko emakume kriptolesbiana askorekin harremanetan jartzeko aukera eskaini zidan, inplizituki, —ia 2004 arte, Espainian ezkontza homosexuala legalizatu zen arte, 2013an Frantzian (?)— [...] Bakea gurera itzuli den honetan aniztasun sexualaren, kulturalaren, politikoaren, sentimentalaren, harremanekoaren... gramatika eta lexikoa landu behar ditugu.